

Bizkaiko Ahdun Nagusiaren berbaldia Bizkaiko Politika Orokorreko Osoko Bilkuran

(Gernikan, 2018ko irailaren 24a)

Bizkaiko Politika Orokorreko Osoko Bilkura hau Gipuzkoan hasiko dot, gipuzkoar eta euskaldun mundial bategaz: Eduardo Chillidagaz, hain zuzen be. Eta, hasteko, eskerrak emon gura deusaguz bere inspirazioagaitik. Berak esaten eban moduan:

“Zer gara?

Egiten doguna.

Esaten doguna.

Entzuten doguna.

Edo inspiratzen deuskuna.

Hori guztia gara”.

Eduardo Chillidak eta bere beharrak asko inspirau nabe. Haizea orrazteko kapaz dan pertsona batek inspirau egiten nau; inspirau egiten nau horizonteari gorazarre egiteko kapaz dan pertsona batek; inspirau egiten nau mamina topau eta errez eta ulergarri bihurtzeko daukan erreztasunak. Benetan estimetan dot Eduardo Chillidaren dohain hori. Estimau egiten dot, badakidalako zein konplikaua dan erreza izatea eta zein erreza konplikaua izatea.

Eta inspirazino horrek eroan nau Bizkaiaren ganeko nire lehen hausnarketara, 2018ko irailaren 24an bizi dogun Bizkaiaren ganekora. Zeren inguruan mugitzen da Bizkaia? Zein da Lurralde honen mamina? Normaltasuna. Bizkaia, Chillidaren esanetan, normaltasunaren ganeko gorazarrea da. Eta, normaltasuna, batzuetan, konturatu barik pasetan da. Kotxeetan moduan, serieak berez dakarrela emoten dau, baina ez da holan. Euskadin ondo dakigu hori, holan bizi izan dogu-eta. Gaur egun be ez dago zertan oso urrun joan, normaltasuna ez dala hain normala egiaztatzeko.

Bizkaian bai. Gozaten dogun normaltasun hori gogoan euki behar dogu, agian aurrean euki arren ez dogulako ikusten edo behar dauen moduan baloretan. Normaltasun horren jakitun izan behar dogu, eta daukan balio handia autortu. Normaltasuna ez da zerutik jauzten, ez dator serietik; ekintzakaz eta jarrerakaz lotuta dago. Bizkaian normaltasunak hiru oinarri daukaz, Errontegiko zubia edo Bizkaia zubia lako boteretsuak diranak: egonkortasuna, bizi-kalidatea eta gizarte heldua. Zer da normaltasuna Aldundi honentzat? Normaltasun horren alde behar egiten segitzea bezain erreza eta konplikaua dan betebeharra. Normaltasunetik edozein ortzi-mugari aurre egin ahal zaio; normaltasuna bitarteko bezala, ez jomuga bezala. Horixe da Gobernu honek Bizkaiko gizarteari bialdu ahal deusan mezurik onena: Bizkaiko Foru Aldundiak beharrean jarraitzen dau, Bizkaiaren alde. Egunero-egunero. Gaur be bai, atzo egin eban eta bihar egingo dauen legez. Normaltasuna. Normaltasunaren ganeko gorazarrea. Normaltasuna eta beharra. Zarata barik, burruka barik, lotsa barik; batzuetan zuzen, eta, beste batzuetan, zelan ez, oker.

Zuzen eta oker, antagonikoak izan arren, axioma beraren barruan sartzen diralako: zuzen edo oker egiten dau gauzak egiten dauzanak, erabagiak hartzen dauzanak, ekimena erakusten dauenak, mahai ganean ideiak eta proiektuak planteetan dauzanak. Hau da, erabagiak hartzera ausartzen

danak bakarrik jokatuko dau zuzen edo oker. Horregaitik daukagu harrotasun bera zuzen egindakoen eta oker egindakoen ganean: ausartzen dan, erabagiak hartzen dauzan, norabidea argi daukan eta gobernatzen dauen Aldundi baten emoitzea diralako. Bizkaiko gizon eta emakumeek beren botoagaz aldi baterako laga euskuen erantzukizuna bete-betean eta normaltasun osoz hartu dauen Aldundiarena. Gure beharra da, eta ahalik eta ondoen egiten dogu. Behar erreza eta konplikaua.

Beraz, gaur beste egun normal bat da, beste behar-egun bat Bizkaiaren eta bertan bizi diran pertsonen alde. Zaratarik, burrukarik, nahasterik bako beste egun bat, gitxienez Aldundi honen eta Ahaldun honen kasuan. Aldundi honen erdi-erdian dagoz, izan be, pertsonak, eta gozatzen dogun bizi-kalidate altuari eutsi gura deusagu. Jendeak arazoak konpontzeko aukeratu gaitu; ez arazoak sortzeko. Badakit badagozala hobeto egon beharra daukien personak. Badakit, hain zuzen be, eurak esan deustielako, entzun egin deusezalako. Ahaldun hau asko egoten da kalean, eta holan segiduko dau: Bizkaiko herri guztietako pertsoneri entzuten, estualdian dagozan familiei, erretirauei, ondo doakienei, mileuristei, talentuei, beharginei, seme-alabak daukiezan bikoteei, kanpoan dagozan bizkaitarrei... Euren esana entzuteko, aurpegia emoteko, eta, beti, honako hau beteteko: ez deusatu inori zin egin bete ezin dodan ezer; ez deusatu inori oparitu itxaropen faltsurik.

Baietz esatea ezetz esatea baino errezagoa da. Sarritan suertatu jata ezetz esan behar izatea. Familiek, enpresek, autonomoek... moduan, geuk be txarto pasatu dogu. Krisiak bete-betean jo euskun. Gauza bat da Bizkaiko Ahaldun Nagusia izatea, eta beste bat, oso desbardina, lanparako jainua izatea. Aldundi honek ez dau miraririk egiten; baina behar handia egiten dau giroak eta inguruak sortzeko, egoerak proiektatzeko, joerak bultzatzeko, Bizkaiari konfiantzea eta norabide bat emoteko, eta belaunaldi barriari Lurralde hobea izteko. Horretan segitzen dogu, eta, holan segiduko dogu. Livingstone doktoarek esaten eban moduan, edonora joango gara, baldin eta aurrera bada. Eta aurrera joan gura dogunez, urratsak emoten segitzen dogu. Urrats laburrak, baina urrunera begiraten dabenak, zergaiti bat eta zertarako bat daukien proiektuen bidez. Izan be, proiektuak, ikuspegiak eta zergaitirik ez badaukie, paper- eta diru-multzoa baino ez dira. Asmoak eta zertarakoak daukiezan proiektuak dira benetan ilusinoak eta itxaropena sortzen dabenak.

Gaur egun normal bat da. Egun normal garrantzitsu bat. Batak ez dau bestea kentzen, inondik inora. Gauza garrantzitsuen ganean normaltasunez berba egiteko kapazak gara. Zahartzea da erronka global handietako bat; baita Bizkaian be. Munduko gobernu aurreratu guztiak demografia zapaltzaile honi begira dagoz; baita Bizkaia be.

Zin egin neban estrategia bat aurkeztu eta zahartzeari buelta emoten ahaleginduko nintzala, Bizkaiari, pertsoneri eta Lurraldeari aukerak eskaintzeko, alor sozial eta ekonomikoan. Daborduko prest daukagu abiapuntu ausart eta adoretu hori, urrunera begira. Badakit behar-alor honetan gehiago dirala zalantzak ziurtasunak baino; baina gobernu guztientzat, ez bakarrik Bizkaiarentzat. Horixe da etorkizuna, etorteko dagoana. Eta ausartak izateko prest gagoz, erabagiak hartu eta bidea egiteko prest.

Hasierako hausnarketea erreza eta objektiboa da: hiru hamarkada barru, hamar bizkaitarretatik hiruk 65 urte edo gehiago eukiko dabez, eta horixe izango da biztanleria-talde handiena. Piramideak alde bres egongo da: oinarria pasauko da tontorrera, eta tontorra bihurtuko da oinarri. Danok dakigu ezinezkoa dala piramide bati tontorretik eustea; jauzi egiten da. Horixe da datorrena; ez da ez ona, ez txarra; holan da.

Orain arte zahartzea gastuagaz eta inbersinoagaz lotu izan dogu; etorkizunean beste kontzeptu batzuek lotu behar dogu, hau da, diru-sarrerakaz, ekonomiaren eta sektore ekonomiko barri baten bultzadeagaz, enplegu barrien sorrereagaz, ezagutza- eta ikerketa-arlo barrien agerkundeagaz. Erantzun bat emon behar deutsegue 65 urtetik gorako pertsona nagusien beharrizan guztiei. Euren bizi-kalitatea bermatu behar dogu, arreta hobea eskainita, eta, horrezaz ganera, premiazko erantzunak emon behar deusaguz iraunkortasuna behar dauen sistema bati.

Beharrari ekiteko garaiz gabiz. Gobernu aurreratu guztiak honetan gagoz eta ardura horrek oso argiak diran aukera-esparru batzuk eragin dauz: laguntza sozio-sanitariorako beharrezkoa dan teknologia, pazienteak jagotea bera, osasun-zerbitzuen kudeaketea, elikagaien alorra, etxe-adimentsua deitzen dana, mugikortasuna, aisialdia, adinekoentzako finantza-zerbitzuak... Horrek dira danok adierazoten doguzan lan-eremuak.

Behin puntu honetara iritsita Bizkaiaren tamainuagaz eta gauzak egiteko gure ereagaz bat datorren erabagi garrantzitsua eta koherentea hartu dogu. Gure dimentsionagaitik guretzat beharrezkoa da apustua egitea; hiru sektore zehatzetan onak eta garrantzitsuak izateko ahalegina egitea. Apustu hori antolatzeke ez dogu zozketa bat egin, eta sei irizpide objektibo bete doguz. Bat, arlo horretarako ezagutzak eta profesionalak euki behar doguzala. Bi, Lurraldearen ahal zientifiko-teknologikoak. Hiru, proiektu honetan interesa daukan enpresa-sarea egotea. Lau, estrategia honek Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Planagaz konektatzea. Bost, aldi berean, Europar Batasunaren aholkuekaz eta orientazioagaz be konektatu daiala. Eta, sei, estrategia horrek nazinoarteko eta nazinoarteratzeko bokazinoa eukitea, Bizkaiaagaz edo Euskadigaz bakarrik ez daualako balio.

Esparru erraldoi horretan sei iragazki honeek aplikauta Bizkaiak gairditu behar dauzan hiru erronka definitu doguz. Lehen erronka: zahartzeari zuzenduta dagoan ezagutza eta prestakuntza berezia sortzea; oso argi daukagu funtsezkoa dala ondo prestatuta dagozan profesional gaituak euki behar doguzala. Beraz, ahalik eta arinen Bioingeniaritza eta Medikuntza-Teknologiako prestakuntza- eta ikerkuntza-programak ipini behar doguz martxan.

Bigarren erronka, lehenengoaren osagarria dana: adineko pertsonen zerbitzura egongo diran teknologia barriak sortzea; gero eta zaharragoa dan biztanleriaren beharrizanetarako urtenbideak aurkitzea, hau da, pertsonen bizi-kalitatea eta zaintza hobetuko dabenak. Bai ala bai enpresa, talentu eta kapitalaren ekosistema bat behar dogu, produktu teknologiko barriak pentsau, diseinatu eta egingo dabezanak. Teknologia goitik behera aldatu dau gure bizitza eta oinarritzkoa izango da baita zahartzerakoan be. Uste dogu derrigorrezkoa dala Lurraldeak merkatura iritsi aurretik jauzi kualitatiboa eskatuko dauen sektorerako produktuak frogatuteke eta balidatzeko laborategi aurreratu bat eukitea, osasunaren alorrekoak (ospitaleak eta egoitzak) eta alor sozio-sanitariokoak (etxeak). Adineko pertsonen zaintzaren eta osasunaren zentroak etxea izan behar dau. Holan gura dabe gure adinekoek eta gu, horretan be, ados gagoz eurekaz.

Laborategi hori Ekintzailetzako Nazinoarteko Zentroagaz konektauta egongo da, funtsezkoa dalako ikertzaileak eta ekintzaileak euren artean konektauta egotea. Eta, zelan ez, guztiz da oinarritzkoa ekintzaileak Silver Economy-ko enpresa teknologiko eta zerbitzuetako enpresa handiekaz konektatzea. Ez gara kapaz maila globalean merkaturatu menperatzen daben korporazio handiekaz lehiazteke baina geure artean batu eta gauza izan gaitেকে korporazio handi horreei inguru, kalitatea eta barrikuntza eskaintzeko. Produktu jakin batzuetan Made in Bizkaia lortu gura dogu, zahartzearen mundu mailako errealitate horretarako teknologien eta ekipamendu-hobien zuzkitzaile bihurtu. Ekosistema horrek korporazio handiak erakartzea gurako geunke, zati aktiboa eta ekoizlea izan daitezala. Gatxa? Bai. Oso gatxa. Baina, zergaitik ez? Ahalegindu gaitazan.

Eta hirugarren erronkea: Big data plataforma bat sortzea Herrian bereizita daukaguzan milaka eta milaka datuak zentralizatzeko eta ezagutza, aukera erreal, bihurtzeko. Datua edo, hobeto esanda, datuen tratamendua, petrolio barria da. Euskal administrazioek, ezer badaukagu, datuak dira. Erabili daiguzan guztion onurarako, ahalik eta zentzurik osoena emonda. Horrek pertsonak hobeto ezagutzeko balio behar deusku, pertsonak hobeto jagoteko eta etorkizuneko beharrianei aurre hartzeko. Aldi berean, egiten doguna hobetzeko eta eragingarriagoak izateko balioko deusku. Aukera barriak definitzeko, negozio-linea barriak. Jakina, hori guztia beti pribazitatea eta sistemearen eta datuen segurtasuna bermatuta. Eta barriro be lehenengo erronkara itzulita, prestakuntzagaz eta ezagutzagaz lotuta dagoana, Big data, merkatuen analisi eta adimen artifiziala alorretako ikerkuntza aplikauko espezialistak behar doguz. Holango profilak presaz behar doguz. Eta argi geratu daiala: ez dogu beste ezer ordeztu gura; gure asmo bakarra prestakuntza oso-oso espezializatu bat sustatzea da, Lurraldeko enpresakaz eta nazinoarteko enpresakaz konektatuta dagoana.

Euki daukaguz estrategia honek arrakastea lortzeko beharrezkoak diran elementu guztiak. Bizkaiko Foru Aldundi moduan bizitza propio eta ibilbide luzeko ekosistema sortzeko derrigorrezkoak diran elementuak ipinten doguz. Beste alde batetik, aliaurik onenak daukaguz: Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udala proiektu honen parte aktiboa dira. Guztion artean sektorea, aukera hau, jorratu gura daben beste eragile, enpresa eta alkatuei ekosistema hau eskaintzeko gauza gara. Hemen beste ezegaz konparatu ezina dan ekosistema eukiko dabe: gurea Lurralde eta Herri industrial eta barritzailea da, Ekintzailetzako Nazinoarteko Zentroagaz aurrera-jauzi oso nabarmena emongo dauena; ondo oinarrituta dagozan zientzia eta teknologia sareak daukaguz; abanguardiarako osasun sistemak eta gizarte laguntzako sistemak; “bezeroak” bermatuta daukaguz, 65 urtetik gorako pertsonak –gero eta urte gehiago bizi diranak-; ideia eta teknologia barriak sortzeko gauza izango diran ezagutza eta profesionalak sortuko doguz; eta azkenean adineko pertsona horreen bizitza hobetzeko ideia eta proiektu horreek errealitate bihurtzeko enpresak sortzen joango dira; enplegua, jarduera ekonomikoa eta bizi-kalitatea sortuko daben enpresak.

Horreek dira hasierako hiru erronkak. Eukiko dogu astia beste batzuei be ekiteko baina, izan gaitazan errealistak eta goazen urratsez urrats, lar egin gura dauena azkenean ez dalako inora heltzen. Aurre egin behar deusogu datozan hamarkadetako erronka demografikoari. Erronka globala da, bai, baina baita Bizkaiarena, Euskadirena be. Hemen mundu osoan saltzeko moduko teknologiak eta formulak frogatu behar doguz. Bizkaian jarduera eta enplegu sektore barria sortu behar dogu. Gogo ausart eta zintzo honek motor bat behar dau: Nagusi Intelligence Center-a, NIC. Zahartzeari ekiterakoan mundu mailan erreferentzia izango da, zahartzea enplegu zein aukera ekonomikoan bihurtzean, Bizkaiaren eta Euskadiren etorkizunaren zerbitzura egongo dan erreminta barria. Ez da bakarra, hor daukaguzalako AIC (Automotive Intelligence Center), EIC (Energy Intelligence Center), Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa, eta Bilbon kokatuko dogu.

Bilbo ezagutzaren eta barrikuntzaren alorretan erreferentzia bihurtzeko gure apustu bateratua da. Eten barik egiten dogu behar Eusko Jaurlaritzagaz eta Udalagaz proiektu honetan. Hau da Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamena eta konpromisoa zahartzearen, Silver Economyaren inguruan aukerea sortzeko. Eta sinistu egiten dogunez, benetako apustua egingo dogu: 20 milioi euro bideratuko ditugu datozen bost urteetan. Uzta batu gura badogu erein egin behar da, bai denporea eta bai baliabideak inbertidu behar dira. Pazientziagaz, baina ekinak izanda. Hori derrigorrezkoa da Bizkaikaren etorkizunerako, guztion etorkizunerako, eta sistemaren jasangarria lagunduko deusku. Erronkea itzela da; baita gure apustua be. Bizkaiko adinekoakaz eta euren ongizateagaz daukagun konpromisoa indartzen dauen apustua, gizarte honenganako ardurea daukan kudeaketeagaz.

Gobernu soziala gara. Esango neuke ez dagoala inor ezkerretik gu aurreratzeko gauza danik. Barriro be, ez dira berbak, gertaerak dira: 217 kontratu publikotan 2.018 klausula sozial baino gehiago sartu doguz (enpleguan kalidadea bideratzeko klausulak, bardintasuna, euskerea, ingurumena babestekoak edo gazteak laguntzekoak); Eudel eta udalen eskutik gizarte zerbitzuen zorro barria zabaltzen hasita gagoz; gizarte bereizkeria arriskuan egozan bostehun bat pertsona lagundu doguz; desgaitasuna daukien 310 pertsonak enplegua aurkitzeko prozesuan lagundu dogu; indarkeria sexistaren edo gizarte-haustearen biktimak izan diran 133 emakumerengandik oso hurbil egon gara; indarkeria sexistaren biktimak izan diran 38 mutiko eta neskaentzako maitasuna eta babesu euki doguz; etxea bilatu deutsegue kalean bizi ziran 20 pertsonari... Hori guztia posible da gizarte-sentsibilidadea eta hori praktikan aplikatzeko programa bereziak daukaguzalako.

Aldundi serioa eta berbakoa izaten jarraitzen dogu, esaten dauena beteten dauena. Hori, zorionez, gurean ohiko gauzea bihurtu da: berbea betetea, norberak esaten dauena egitea. Hementxe bertan orain urte bat hartu genduzan konpromisoak bete doguz: inbertsino funtsak errealidadea dira, Zaintzailearen Estatutuak jagoleak jagoten dauz; beste bultzada bat emon deusagu bardintasunari foru arau bategaz; fiskalitate erakargarriagoa eta lehiakorragoa sustatu dogu, Europako lokomotorek daukien fiskalitatearen modukoa; errepideak eta komunikazioak hobetu doguz, Ermuko saihasbidea, Lea Artibaiko lehen fasea, Autzaganekeo tunelak, Gerediaga-Elorrio... Eta Bizkaia Goazen 2030 Plan Estrategikoaren konpromisoak beteten goaz. Ekainaren 30ean 120 jarduketetatik 43 amaituta egozan eta beste 71 betetze-fase desbardinetan dagoz.

Esatea erreza da, baina urtea sano gogorra izan da. Makina bat behar egin dogu. Askotan animaliak moduan, itoteko moduko erritmoakaz, gure berbea betetera iristeko presinoa itzela izan dalako. Eta hau ez dinot alperrik, egia dalako baino. Bidezkoa dalako. Kanpoan behar egiten dan moduan guk be, hemen barruan, behar egiten dogulako, eta asko ganera. Aldundian behar egiten daben pertsonak be entzutea merezidu dabelako eta nire aintzatespena eta esker ona merezidu dabelako.

Behar honi esker Bizkaiak funtzionau egiten dau. Eta egunero funtzionatzen dau. Metroak funtzionatzen dau; Bizkaibusek funtzionatzen dau; gizarte-sareak funtzionatzen dau; hondartzek funtzionatzen dabe; Guggenheimek funtzionatzen dau; 110 urte bete dauzan Arte Ederren Museoak funtzionatzen dau; Barakaldoko BEC-ek funtzionatzen dau; Euskalduna Jauregiak funtzionatzen dau; eskola kirolak funtzionatzen dau; eskualdeetan laguntza integrala emoten daben bulegoek funtzionatzen dabe; Suhiltzaileek funtzionatzen dabe; iruzurraren kontrako borrokeak funtzionatzen dau... Bizkaiak funtzionau egiten dau. Hori da normaltasuna. Eta funtzionau ez eze, aurrera egiten dau, balio erantsia eskaintzen dau gauza guztietan: enpleguan, alor ekonomikoan, egonkortasunean, nazinoarteko presentzian, bizi-kalidadean.

Datuak dira, ez dira usteak edo iritziak. Gure lehentasunak enplegua eta jarduera ekonomikoa izan dira eta emoitzak heltzen hasi dira. Gobernura heldu ginanetik gaur egunera arte Bizkaian 31 enpresa barriren ezarpenari lagundu diogu zuzenki: hamahiru enpresa finkatu eta hamazortzi startups. Gehiago erakartzeko lanean jarraitzen dogu. 1.351 enpresa txiki eta ertain lagundu doguz; 482 ideia barrizaille sustatu doguz eta abuztua orain urte batekoak baino 5.000 langabetu gitxiagogaz amaitu dogu. Egia da, bai, oraindik be beste 71.376 pertsona daukaguzala langabezian baina, aldi berean, egia da krisi aurreko mailetan gagozala. 30 urtetik beherakoentzako 141 kontratu sustatu doguz; 117 kontratu 45 urtetik gorakoentzat edo iraupen luzeko langabetuentzat, eta funtzionarioen 597 plaza atara dira enplegu eskaintza publikoaren bidez. 21 Enplegu Anezketan 135 pertsona daukaguz eta horreen laneratze-gradua % 63koa da, eta Bilbokoaren kasuan % 90ekoa. Beraz, argia da enpleguagaz daukagun konpromisoa. BPGk lau urte daroaz eten barik

hazten eta erritmoa % 2,8koa izan da aurtengo lehen sei hilekoan. Barruko kontsumoa hazi egin da, eta hori be seinale ona da. Bizkaian hamar enpresatik ia zazpiren kasuan hobetu egin dabe negozio-kopurua; erdietan plantila gehiagotu dabe, enplegu gehiago dago eta, praktikan ia guztiek, % 96ak, gehiago inbertidu dabe. Asko eskertzen dot gure sare industrialak eta enpresarialak egin dauen ahalegina eta jakin dakit enpresen ia erdiak prezioak egonkor mantentidu dabezala edo euren irabaziak gitxitu dabezala. Munduagaz lehiatu gura badogu ez dago beste biderik. Eta hori lortzen gagoz.

Bizkaiko ekonomia mundukoagaz gero eta konektuago dago eta praktikan enpresa esportatzaile guztiek, % 92ak, 2018ko lehen sei hilekoan % 18 hazi diran salmentak mantentidu edo gehiagotu dabez. Esportazio horreek gure motor ekonomiko nagusienetakoa dan Bilboko Portuaren hazkuntza eragiten dabe. Eta gauza bera, gora egitea, gertatu da baita Loiuako Aireportuagaz be, aurtan ia lau miloi bidaiari euki dauzalako, 2017an baino % 10 gehiago. Gero eta jende gehiago dator gu bisitatzerara eta Bizkaia gero eta erakargarriagoa da batez be atzerriko bisitariarentzat, gurera datozenetatik hamarretik lau atzerritarak diralako. Barriro hobetu dogu bisitarien marka eta hori oso adierazogarria da, baina ez da gehien arduratzen nauena. Badago gehiago arduratzen nauan zeozer, bisitari horreentzat gu destino berezia izatea. Bizkaiak liluratu egiten dauz bisitariak, harritu egiten dauz eta garana baloratzen dabe. Harrituta geratzen dira Bizkaia apartekoa eta benetakoa dalako, gure paisaiagaitik eta, batez be, gure jendeagaitik. Harrotasuna eragiten deust hau esan ahal izateak. Bizkaia honegaz harro nago.

Baina hori guztia ez da berez gertatzen, eragin egin behar da. Eta horrek beharra, pertsonak, udalerriak, alkateak, bitartekoak, ostalaritzaren alorra, unibertsidadeak, autonomoak, baserriarrak, Ertzaintza... eskatzen dauz, Bizkaiak ekipo aparta dauka. Guztion artean 2018. urtea Bizkaiarentzat egundokoa izatea lortu dogu. Gatxa izango da holango beste bat eukitea eta bizitzea, ametsetako urtea, baina orandik be amaierea falta jako: MTV musika-sariak, nazinoarte mailan erreferentea danaren zilarrezko etzeiak. MTVk munduko edo Europako edozein uri aukerau leike, baina Bizkaia hautatu dau, gure uriburua, Bilbo, Getxo, Barakaldo eta Durango. Zeozergaitik izango da. Disfrutau daigun. Aldundi honen obsesinoa pertsona kopuru ahalik eta handienak disfrutatea da danontzat esperientzia ahaztu ezina izan daian. MTVk Bizkaian antolauko dabena ez dau inoiz beste inon antolau. Gurean egingo dauen despliega barria eta apartekoa da eurentzat be. Guk ahalegin guztiak egingo doguz aste hori Bizkaiarentzat eta MTVrentzat arrakastatsua izan daian, The World's 50 Best Restaurants ekitaldia, Espainiako Vuelta, rugbyko finalak edo Routes Europe-gaz gertatu dan moduan.

Eta ez dot neuk esaten, ekitaldi horreen guztien antolatzaileek eta mundu osoko prentseak baino: Europa osoko aire-konpainia, aireportu eta turismo-agenteen 1.200 ordezkari Barakaldon, BECen; rugbyko finalek izan eben 30 milioi eurotik gorako eragin ekonomikoa; bisitariak Bizkaia baloratzerakoan 10etik 9,2ko puntuazioa emotea; Gastronomiako Oskarretan 47.000 artikulu mundu osoko komunikabideetan, 42 milioi erabiltzaile baino gehiago sare sozialetan eta 108 milioiko eragin ekonomikoa. Gauzak egitea ez eze, eta benetan gauza garrantzitsuak dira, ondo egiten doguz. Hau be ohikoa izaten hasita dago. Aste gitxi barru Bizkaia musika-eszenatoki handia bihurtuko da. Urte oso gogorrek eta ilunak bizi ostean merezidu genduan alaitasuna eta kolorea. Horixe da MTV: alaitasuna, kolorea eta musikea, musika asko. Musikea plazerra da eta zuzeneko musikea, askoz gehiago. Beraz, disfrutau eta gozau. Gure asmoa: guztiok disfrutau eta gozau daigula, Bizkaia guztiak dantzan egitea eta musikea sentidutea. Gitxiago falta da urriaren 29tik zemendiaren 4ra arte ospatuk dan aste sendo horretarako.

Kontrastez beteta dagoan Lurraldea gara. Arazoak euki dauzan urtea be izan da. Nork ez dauka arazorik? Zein etxetan ez dago arazorik? Ba gurean be badagoz. Normaltasuna. Eta arazoak aitatzen dodazanean ez dodaz eguneroko gorabeherak aitatzen, arazo larriak baino, letra guztiekaz. Bi aitatuko deusuedaz. Bakarrik dagozan adin bako etorkinen arazoa, mundu osoko pertsonak, herriek eta gobernuek sufritzen daben arazoa, eta baita Bikaiak be. Arazoaren oinarria historikoa da: desbardintasunaren arazoa, pobreziarena, ezer ez eukiteagaitik dana bertan behar itzi behar dauenaren arazoa. Lurralde solidarioa eta gizarte solidarioa gara. Beti egon gara behar dauenari laguntzeko prest eta laguntzen jarraitzen dogu. Tokietan bertan laguntzen, garapenerako lankidetzagaz (iaz baino % 20 gehiago), batez be migratzaileentzat eta errefuxiatuentzat; eta baita destinoan, bertan, laguntza emonda be. Baina laguntzinoa emoteko baliabideak euki behar dira. Bai, baliabideak eduki behar dirala esan dot.

Nik ez dot beste batzuek egiten dabena egingo eta ez noa hain gauza serioagaz demagogiarik egitera. Niretzat laguntzea ez da pertsona horreei argazkiak egitea eta kalejiran eroatea. Laguntzea ez da pertsona horreek politikea egiteko erabiltea, horrerik politikea deitzerik badago. Laguntzea benetan laguntzea da, bizi-proiektu bat hasten laguntzea. Benetan laguntzea ez da bakarrik heltzen direnean abegia emotea; gainerako herritarrek daukiezan eskubide eta obligazio berberak eskaini behar jakez: hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza... Hori da laguntzea. Eta gobernu guztiek, gizarte guztiek laguntzeko, inklusiorako ahalmen mugatua daukie. Daukaguzan baliabideak eta bitartekoak daukaguz. Horren guztien baturea ehun da eta beste gauza baterako gehiago erabili gura badogu nondik edo handik kendu beharko da. Enpresa txiki eta ertainentzako laguntzetatik kenduko dogu? Udalen finantziarizotik kenduko dogu? Obrak kenduko doguz? Nazinoarteko ekitaldiak kenduko doguz? Nire erantzuna ez da. Gizarte solidarioa izaten jarraitzeko gizarte orekatua izan behar dogu eta solidaridadearen alorra baino ez badogu jorratzen hautsi egingo dogu oreka hori. Oreka hori babestu behar dogu. Beste batzuek solidarioak izateko lehenengo eta behin geure artean izan behar dogu solidarioak, lurraldeen artean, erkidegoen artean eta Herrien artean. Guztiok solidarioak bagara danok izango gara irabazle. Inork ez dau bere bizia hiltzeko arriskuan ipinten plazer hutsagaitik, ez datoz plazerragaitik, eta guk be ez dogu "ezetz" esaten plazerragaitik. "Ezetz" esaten dogu ez daukagulako pertsona horreei benetan laguntzeko baliabide gehiagorik. Aldundi honek kupoen bidea ipini eban mahai ganean eta hori eskatu jaken Gobernu Espainiarrari eta Eusko Jaurlaritzari. Emoten dau zeozer aurreratu dala, baina bide hori jorratu behar dogu. Barriro azpimarratu gura dot, beste batzuek solidarioak izan gura badogu geure artean izan behar dogu solidarioak. Konponbidea, guretzat behintzat, ez da abegi-zentro gehiago zabaltzea. Pertsona horreei abegia eskaini ostean, zer, nork, zelan, noiz? Batzuei solidaridadea eskatzen deusiet eta beste batzuei demagogia gitxiago. Barriro gogorarazoten dot Bizkaia solidarioa izan dala, dala eta izango dala, baina ahal daueneraino

Kezkatzen gaituan beste arazo bat toki merkataritza da. Egia da kontsumoak gora egin dauena, baina kontsumo hori ez da egiten hurreko merkataritzan, auzoko zapata dendan, herriko kirol dendan... Gizarte aldaketek, merkataritza elektronikoak eta merkataritza zentro handiek erosteko modua aldatu dabe. Denpora tarte luzea egin dogu sektoreagaz beharrean, ia miloi bi euro inbertidu doguz digitalizazio proiektuetan, kualifikazio pertsonalean, prestakuntzan edo enpresa transmisinoko proiektuetan, baina ez dogu teklegaz asmatu. Nire konpromisoa da ahalegintzen jarraitzea, baina sektoreari gogoeta egiteko eskatu gura deusat: 77 elkarte erroldatuta Bizkaian; soilik Bilbon, 14. Egoerak behar-beharrezko egiten dauz batasuna eta proiektu partekatuak. Foru Aldundi honek lagundu gura dau eta lagunduko dau, baina erronka nagusia zeuona da: bat egitea, Bizkaiko merkataritza izatea, kalidadezko merkataritza, hurrekoa eta lehiakorra, balio erantsia eskainiko dauena.

Hurreko adibidea ipiniko deusuet. Erreferentziazko Lurralde gara elektrizidadean eta tradizio eta potentzial handiko enpresa asko daukaguz, Bizkaian traxino enpresak diranak, baina maila globalean txiki geratzen diranak, oso txiki. Egoera toki merkataritzak eukanaren antzekoa zan: edo tamaina eta lehiakortasuna irabazten eben, edo arazoak eukiko ebezan. Errealidade hori urte askoko gatazkak gailendu jake eta enpresa horreek lankidetzan jardutea erabagi dabe, alkarregaz. Zergaitik? Bai, jokoan dagoalako pertsianak zabalik ala itxita egotea. Konturatu egin dira bakarrik ezin dirala inora be joan, ez dirala kompetentzia, ezpada beharrezko, ezinbesteko aliauak. Automobilgintzako hainbat enpresa txikik gauza bera egin zuten CIE Automotive txapeldun globala sortu zutenean. Toki merkataritza be horretara konbidau gura dot, horretan ahalegintzera. Hortxe egongo gara, beste batzuek euki gaituen modu berean. Badakit ez dana erraza eta arazoak ertz asko daukazana, baina ez dot etsi gura. Toki merkataritza garrantzi handikoa da herrientzako, Bizkaiaentzako. Bizitza bera da. Komertzio horreek enplegua dira, jardurea, baina bai eta Bizkaibuseko autobusak, gizarte laguntzak, hezkuntza, komunitadea sortu eragiten daben zentroak, nortasuna eta kulturea be. Horrexegaitik da hain garrantzitsua bizirik jarraitzea eta horrexegaitik jarraituko dogu ahalegintzen.

Eta modu berean ahaleginak egingo doguz Bilboko Nazinoarteko Ekintzailtza Zentroa arrakastatsua izan daiten. Azken baten, proiektu transformatzailea izango da, orainari eta geroari begira oso garrantzitsua. Lanean gabiltz buru-belarri behar dogun proiektu apurtzailea izan daiten. Zentro hori BBVAk Bilboko Plaza Biribilean beteten eban dorre zaharrean kokatuko da. Hori ez da bulego bat zabaltzea, kartel bat ingelesez ipintea, argi bat piztea edota jendeari sartu arte itxarotea. Askoz konplexuagoa da, handizaleagoa. Kontua da ekintzailtza eta barrikuntzako ekosistema bat eregitea, lurraldeko premiei lotuta eta munduagaz konektuta. Denpora luzea inbertidu dogu eta ilusino handia, eta hori ikusetetik, ikutzetik hurren gagoz.

Hurrengo hilabeteak erabakigarriak izango dira. Uste dot gure asmoen adierazopen garbia dala, zergaitiaren metafora argia. Sasoi baten amaiera izan zan. Horregaitik, Foru Aldundi honek dorrea piztu gura dau ostera be eta ideiak eta negozio barriak argituko dauzen sasoi barri bateri ekin gura deutso, enpresak sortzen laguntzeko, gure pisu ekonomikoa berreskuratzeke, gure profil barritzailea sendotzeko eta gure izaera ekintzailea indartzeko. Espero dogu dorre hori Bizkaiaentzako itsasargi bihurtuko dala, etorkizun are hobea argituko dauen itsasargia. Eta urteetan BBVA dorre modura ezagutua izan zana aurrerantzean Bizkaia dorre modura ezaguna izango dala, Bizkaiaeren zerbitzuepean jardungo dauen dorre modura.

Foru Aldundiak eraikin osoa okupauko dau, gure zerbitzuetariko batzuk zentralizatzeke, eraginkorragoak eta efizienteagoak izateke eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeke. Alokairuan egingo dogu, erosteko aukereagaz. Baina garrantzitsuena, benetan inportantea eta baliotsua izango dana Bizkaia dorrearen bihotza izango da: Nazinoarteko Ekintzailtza Zentroa, Foru Aldundia eta Bilboko Udala batuko dauzen proiektu handia. Proiektu hau ez litzateke posible izango Udalak parte hartu ezean eta Aburto alkatearen inplikazioa pertsonean, zuzen eta benetakoa izan ezean. Pausuak egiten jarraitzen dogu, alkarregaz. Datorren hile amaierarako itxaroten dot Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmena prest eukitea eta urtarrilean nazinoarteko laguntza publiko baterako deialdia egitea, sektorean esperientzia daukan agente bat kontratatzeke, zentroa dinamizatu daian.

Umilak eta praktikoak izan behar dogu. Ez dakigu danatarik. Hau egin dauen erakunde aditu eta esperientziadun baten laguntza behar dogu, erakunde horrek jakingo dau-eta non dagozan aukerak eta non arazoak, eta, ganera, jardunean ipini ahalko gaitu albait arinen. Ostera be azpimarrau gura

dot Udalak eta Aldundiak alkarregaz behar egiteak daukan garrantzia eta ez dot baztertzen agente gehiago gehitzea, zenbat eta gehiago, hobeto. Akordioen Aldundia gara, familia politiko desbardin biren arteko akordiotik sortutakoa. Bi, baina bakarra Bizkaiaren zerbitzupera. Akordioak lortu doguz geure artean eta beste guztiekaz, beste alderdi batzuekaz eta beste erakunde publiko eta pribatuekaz. Gerri malgua daukagu eta badakigu amore emoten, besteen zapatak janzen, beti be akordio horreek Bizkaiarentzat onak badira. Akordio hau ona da. Benetan sinisten dot.

Eta aldi berean sinistuta nago gaur egungo prestazino sistema osatu beharra daukagula Bizkaiko behargin guztientzako BGAE, Borondatezko Gizarte- Aurreikuspeneko Erakunde, baten bitartez. Aditza azpimarratu gura dot: "osotu". Osotzea dagoanari zeozer gehitzea da, ez da ez kentzea ez ordezte. Gure pentsino publikoak osotu behar doguz Europako ganerako herrialde guztietan edo Gipuzkoan egiten dan lez. Normaltasunez. Ez dot besterik eskatzen. Bizkaiko "Geroa" bat eskatzen nabil, urte honeetako esperientzia eta bidean ikasitako hobekuntzak jasoz, prestazino publikoa osotzeko, ez ordezteko. Foru Aldundia eta Ahaldun Nagusia eskaini gura dodaz inplikautako bideratzaile lez, eragile nagusiak beste batzuk dirana jakin arren: enpresaburuak, beharginak eta sindikatuak... Honako hau ezinbestekoa eta ona da guztiontzat. Urteak egin doguz aukera hori landuz eta planteamendu guztiak jarraitzeko eta baloratzeko prest gagoz. Berresten dot ezinbestekoa begitantzen jatala eta ostera be dinot beste herrialde batzuetan, berbarako sarritan arretaz begituten doguzan Alemanian, Danimarkan, Erresuma Batuan edo Holandan, ohikoa dala. Eta horretan be arretea ipini gura dogu.

Aldundi honen beste zutabeetariko baten gaia jorratzen amaitu gura dot: aukeren bardintasuna. Bat gara. Bizkaia eskualde guztiak gara eta eskualde guztiak Bizkaia dira. Gure uriburua, Ezkerraldea, Txorierri, Durangaldea, Eskuinaldea, Busturialdea, Mungialdea, Arratia edo Lea-Artibai. Beti be udalerrietatik, udaletatik hurren, jendearengandik hurren. Arazoak eta ilusinoak daukiezan pertsoneri urtenbideak eta itxaropenak eskainiz. Enkarterri suspertzeko planak aurrera darrai. Oraintxe bertan inplikautako agente guztiak bilduta dagoz. Konpromisoak beteten gabiltz: daborduko enpresa eraldaketako bederatzi prozesu dagoz Koldo Saratxagaren lidergoaren pean; beste 17ren diagnostikoa egin da eta beste 15ek parte hartuko dabe hurrengo hilabeteen ekonomia zirkularreko tailer batean, Mondragon Unibertsitateak eta San Viator-ek lantzen diharduen gai batean, hain zuen; hemendik egun batzuetara programa bat abiatuko da ekintzailertzan jarduten laguntzeko horretan ahalegindu gura daben langabeei zuzenduta; BI-630 errepidearen zati bat hobetu da eta hobekuntzak egiten jarraituko da eta eskualdean Bizkaibusen ordutegiak eta lineak egokitu dira. Eskualderako beste barri ona: datorren eguaztenean Fabio Murgaren planta barria inauguratuko da, orain Winoa dana. Aldundi honek eta Eusko Jaurlaritzak be garrantzi handiko zeregina bete dabe enpresa horrek Balmasedan, Enkarterrin, jarraitu daian.

Gutziz konprometiturik gagoz Enkarterrigaz. Eta Ezkerraldeagaz eta Meatzaldeagaz, non parke teknologiko barria jarriko den. Herritarrengandik gero eta hurrago gagoz. Artapen integraleko bulegoak zabaldu doguz Durangon eta Bermeon eta gitxi barru Balmasedan eta Gernikan be zabalduko doguz. Gernikan espero dot abendu hasikeran be Elkartegia amaituta egotea. Egoitza elektronikoa guztiz operatibo dago eta 136 izapide digital eskaintzen dauz; ganera, Biscaytik-ek aurten bere hamargarren urteurrena beteko dau, modernizazinoko hamar urte udalerrien zerbitzupean. Daborduko 115 erakunde atxiki jakoz kontratazino zentralari. Efizientzia eta efikazia. Asteon Bizkaibusek proiektu pilotu bat egingo dau, eskariaren araberako geltokiak eskainiz Santurtzi, Mungia eta Boluetako lineetan.

Errepidean jarraituz, erabagi garrantzitsuak hartu doguz lurraldeko konektibotasunaren etorkizunari eta bizi-kalidadeari begira. Itsasadar azpiko tunelaren ganean nabil berbetan, Ezkerraldea eta Eskuinaldea batuko dauzen tunelaren ganean, baita Supersur-eko bigarren fasearen ganean be. Proiektu biotan aurrera jarraitzen dogu sendo, eta egun gitxi barru plataforma bat instalatuko dogu itsasadarraren ganean, lehenengo katak egiteko; izan be, horreek ezinbestekoak dira zorupea ezagutzeko eta tunel horren azken trazaketea zehazteko. Auto ilarek urtenbidea emotea premiazkoa da, bereziki A-8an, Avanzadan eta Arrontegiko zubian. Sare seguruagoa eukitea lehentasunezkoa da eta tunel horrek Bizkaia irauliko dau. Orainaren eta etorkizunaren zerbitzura egingo da, tunel horretatik ibilgailuak ez eze bestelako garraio eredu batzuk be igaroko diralako. Ezer okertzen ez bada, urtarrilean hasiko gara Supersurreko obra egiten. Lan honek guztiek zergaitia eta zertarakoa daukiez: Bizkaiarentzako mugikortasun barriaren zati dira.

Obra handi honeetaz gain, txikiak egiten be jarraituko dogu eskualde guztietan. Bidesarea Planean amaitutako 14 jarduketa dagoz, burutzen gabiltzan 10 eta beste 19 tramitazio fase desbardinetan, aurtan edo datorren urtean hasiko diranak. Aste batzuetako epean Markina eta Ondarroa batzen dauzen errepidea hobetzeko bigarren fasea lizitauko dogu, Lea-Artibain. Era berean, Arratia zeharkatzen dauen N-240an be jardungo dogu, Barakaldoko Gurutzeta auzoan, Santurtzin, Galdakaon... Bizkai osoan. Hobetzeko lanak dira, beti hobetzekoak.

Hondakinen politikan be. Estatuak eta EAEk hondakinen gaian zehaztutako hamahiru helburuetatik hamar beteten doguz. Erreferentia izatean jarraitzen dogu eta azpimarratu gura dot ingurumena jagoteko beteten dogun zeregin garrantzitsua, hondartzetan eta mendietan. Pinuaren izurritako konponbide eraginkorra bilatzen dogu hiru diputazioen eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu tekniko eta sektorearen artean. Aldi berean, suteen kontrako burrukan izandako aurrerapen handia nabarmendu gura dot: 2014an 94 sute izan eta 294 hektarea erre ziran; 2018an, osteran, 14 sute izan eta 19 hektarea erre dira. Eta euskarak aurrera jarraitzen dau. Urtero ia 2.000 pertsonak laguntza jasotzen dabe ikasteko, enpresetako, elkartetako eta udaletako 600 proiektu bezala. Aukera bardintasuna berretsi gura dot osteran be; Bizkaian danok gara bardinak. Bizi garan tokian bizi garala be.

Hori berori da lurraldearen ganean daukagun ikuspegia. Ikuspegi eta jarduna. Berbak eta ekintzak. Gaur Bizkaiarentzako oso luzea izatea espero dodan bidearen hasikerea aurkeztu dot: Silver Economyra joateko bidea, zilarrezko ekonomiara, zahartzarora aukera bihurtzeko estrategia, beti be ezagutzan, teknologia barrien ekoizpenean eta Big datan ainguratuta. Konpromiso zehatzak eta bazkide ezin hobeak (Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udala) daukazan aukera bat, beste aukera handi bategaz konektuta: Nazinoarteko Ekintzailatza Zentroagaz. Dorrea osteran be piztu dogu, Bizkaia dorrea. Gidatuko gaituan itsasargia.

Egunean-egunean Bizkaiari urtenbideak eta itxaropenak eskaintzeko lanean dabilen Foru Aldundia gara: fiskalitate barria; Ezkerraldea eta Eskuinaldea itsasadar azpitik batzeko tunela; Supersur-aren bigarren fasea; eskualde guztietako obrak; guztiontzako gizarte sarea, eta harro dagoan Aldundia Bizkaia partekatuta ahal izan dauelako 2018. urte errepikaezina. Hemen gauza bikainak izan dira eta horren jakinaren ganean egotea gurako neuke. Lehen telebistan edo prentsan ikusten genduzan gauzak orain zuzenean, hemen, Bizkaian ikusten doguz. 2018an mundu mailan bete behar dogun rola sendotu da eta horrek gure enpresei eta gizarteari babesa eta laguntza emongo deutse. Gizarte heldu honek jakin daki-eta erronka horreek baloratzen, eskertzen eta babesten. Nire esker ona eta harrotasuna adierazo gura deusat gizarte honeri, gaur egun dan lakoa izateagaitik.

Amaitzeko, ezusteko batetik sortzen dan gogoeta xumea egiten amaitu gura dot. Izan be, Pili Zabalaren ukoak harritu ninduan. Eta harritu ninduan politikara ilusinoagaz heldu zalako, gauzak aldatzeko gogoakaz, ahalegintzeko grineagaz. Bere berbetatik ondorioztatzen dut abrosiduta alde egin dauala, nazkatuta, batzuek politikea ikusten dabelako aurkariari jaurtitzeko harri modura. Eta zenbat eta min gehiago egin, hobe. Zelan edo halan: erdi egiak eta guzurak erabiliz. Eta bardin da: guzurak, erasoak, haginkadak, apurketak. Neu be ez naz hona etorri inor iraintzera edo hondoratzera, beste alde batekoa izateagaitik, bestelako ideiak izateagaitik. Eta bai, neuk be atetik urteteko gogoia euki dot, gauza bakoitzik entzun eta aguanteu behar baitoguz.. Denok ditugu beoraldiak, baina aurrera jarraitu behar da, kontrakoa arrazoa emotea izango litzatekealako. Horregaitik, Bizkaiaren alde lan egiteko daukadan konpromisoa gero eta sendoago eta indartsuago dago. Bizkaiaren alde lan egiten jarraituko dogu, normaltasun osoagaz, azkeneko egunera arte. Gaurdaino erakutsi dogun normaltasun berberagaz.

Unai Rementeria Maiz, Bizkaiko Ahaldun Nagusia